

Abiatu da Bigarren Eskuko Liburu Azoka Algortan

Bigarren Eskuko Liburu Azokaren 7. edizioa zabaldu dute gaur goizean Algortako Telletxe plazan. Ohi bezala, Getxoko Liburutegi Zerbitzuak antolatu du eta bildutako dirua proiektu solidario batean erabiliko dute, aurtien Peruko hiriburuko El Volante auzoan. Igandera arte, lau egunean zehar, bisitariek hainbat gaitako liburuak erosteko aukera izango dute. Salgai jarriko diren liburu gehienak partikularrek liburutegiei emandakoak dira. Salmenta prezioak sinbolikoak izango dira: liburuek, euro bat balioko dute; aldizkariak eta koadernotxoak, euro bat hiru aleko, eta entziklopediak, ale kopuruaren arabera. Halaber, igandean deskontuak egingo dira liburu-sortak erosita. Aurtien 20.000 bat liburu egongo dira salgai, egun arte azokarako bildu den liburu kopururik handiena hain zuzen ere. Eginiko dohaintza guztiak banan-banan aztertu dira, liburutegien bildumari zeintzuk gehitu dakizkiokeen erabakitzeko.

Azokaren ordutegia honako hau izango da: 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 21:00etara. Igandean, ekainak 5, goizez irekiko da soilik. Udal liburu-bildumara pasatzen ez diren hainbat liburu interesgarriak gerta daitezke publikoarentzat eta, hori dela eta, udal liburutegiek saltzea erabaki zuten, Getxoko lau udal liburutegietako garbiketan baztertutako aleekin batera. Horrela sortu zen Bigarren Eskuko Liburu Azoka. Aurreko ekitaldian 15.000 bat liburu saldu ziren bertan eta onarpen zabala izan zuen ekimen horrek.

Dirua Perura

Aurtien bilduko den dirua Perualde GKeri emango zaio. Erakunde hori proiektu bat garatzen ari da Limako El Volante auzoan hezkuntza indartzeko eta komunitatearen garapenerako. Peruko hiriburuko auzo txiro horretako umeen, gazteen eta gurasoen mesederako ekimena da proiektua eta hezkuntza, trebakuntza, kirol eta familientzako jarduerak barne hartzen ditu.